



4. Oñatiko antzinako hizkuntza **SEKUENTZIA DIDAKTIKOA**

Oñati alkarregaz ezaguketako

4. Oñatiko antzinako hizkuntza

MUINA

- Helburuak
 - Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako Oñatiko historiaurreko hizkuntza zein izango zen esperimentatu eta gorpuztuko dute. Bertako jendartea nolakoa zen imajinatuz, hizkuntza zahar bat imajinatuz eta erreproduzitzen edota Oñatiko leku diferenteak ezagutuz KOADROen bitartez -teatroan erabiltzen den jolas bat-.
 - Espezifikoak
 - Oñatin historiaurrean nolako hizkuntza hitz egingo zen imajinatzea.
 - Hizkuntza eta jendartearen beharren inguruko loturaz hausnartzea (bizipenen bitartez).
 - Besteen proposamenen onarpena lantzea eta oinarri bezala aintzat hartzea.
 - Oñatiko leku diferenteak ezagutzea.
 - “Koadroa” irudimena lantzeko proposamen gisa ezagutzea.
- Azken xedea edo ekoizpena
 - Azken xedea izango da taldeka historiaurreko pasarte bat irudikatzea ordu horretako euskarari, KOADROA izeneko jolasaren bitartez.
- Ikaste taldea
 - Lehenengo ziklorako pentsatuta dagoen sekuentzia da, printzipioz.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

HASIERA FASEA

- 1. jarduera → Gure arbasoen hizkuntza

-Irakasleak proiektu berri bat hasteko testuingurua sortuko du hemen ere. Sekuentzia honetan ere asanbladan jarriko ditu haur guztiak eta hasiko da etorkizuneko munduaren inguruan hitz egiten. Hau da proposatuko duen galdera: Nolakoa uste duzue izango dela mundua zuek handiak zaretenean? (Kutsadura aipa daiteke, herri futuristak... eta EUSKARA)

-Hari horri eutsiko diogu eta gai kurioa atera dutela esango dugu. Eta jarraituko dugu: Zuek euskaraz hitz egiten duzue? (Hausnar daiteke erabileraren inguruan, Oñatiko euskararen inguruan...)

-Eta zuen aitona-amonek nola hitz egiten dute? Nola hitz egiten zuten? Zuek erabiltzen ez duzuen hitzik erabiltzen dute? Diferentea da beraz hizkuntza?

Elkarrizketa honetan heldu behar gara ondorio honetara: Hara! Hizkuntzak (munduak bezala) eboluzionatu egiten du! Aldatu egiten da! (Eranskinetan daude baliabide bezala Oñatiko euskeriaren ezaugarri nagusiak. Hauek baliatu elkarrizketari edukia emateko).

-Hau aintzat hartuta eta modu naturalean (elkarrizketak horra eramango gaituelako), hau da otuko zaigun galdera: Eta historiaurrean nola hitz egingo zuten gure arbasoek?

Honen inguruko elkarrizketa bat izan dezaten espazioa utziko diegu aurrezagutzak plazaratu ditzaten.

-Esan liteke hizkuntza bizitzarekin bat datorrela. Horregatik hizkuntza baino lehenago euren bizimodua gorpuztea ideia interesgarria litzateke. Interes hori ikusita irakasleak hurrengo jarduera proposatuko du.

- 2. jarduera → Hizkuntza imajinatzen

-Aurreko interesa ikusita irakasleak hauren imajinazioa postura bihurtzeko jolas bat proposatuko du: KOADROA (egiteko, azaltzeko baino askoz errazagoa da).

-KOADROA teatroan erabiltzen den jolas-teknika-baliabide bat da, besteak beste proposamenen onarpena lantzeko. Hau da, nire aurrekoaren proposamena ikusi, errespetatu, onartu eta horren gainean nire proposamena egiten dut. Helburua "koadro" bat sortzea da pertsonaia geldiekin, artelan bat izango balitz bezala.

Galdera hau litzateke: Nola bizi ziren historiaurrean?

Imajinatu "sukaldeko" pasarte bat irudikatu nahi dela. Bada, hau litzateke egitekoaren hurrenkera:

1- Gutxienez gelako 5 lagun aukeratu boluntario bezala. Gela guztia publiko bezala eseriko da, baina aipaturako 5ak koadroa egiteko ardua izango dute.

2- Galdera entzun ostean bat "oholtzara" igoko da eta bere proposamena egingo du eta postura batean jarriko da geldi eta ezingo du hitz egin (adibidez, kobazuloko pareta pintatzen egongo balitz bezala).

3- Hau ikusi eta hurrengoak proposamen horren gainean beste zerbait proposatuko du (esate baterako, ehizan ibiliko balitz bezala arku eta geziekin...)

4- Horrela harik eta aukeraturako guztiak irteten diren arte. Horrela koadroa osatuko dute, irakasleak argazki bat aterako die ebaluazioan erabil daitekeena, adibidez.

5- Publikoak zer ikusten duen esan beharko du

6- Antzezleek ze intentzio izan duten konpartitu beharko dute.

-Honen inguruko hausnarketaxo bat egin dezakegu eta plazaratuko dugun azken galdera hau izango da: Gaurkoarekin konparatuta, ze bizitza da sinpleagoa, gurea ala eurena? Beraz, zein euskara izango da sinpleagoa, gurea ala eurena?

GARAPEN FASEA

- 3. jarduera → Antzinako euskara antzerkiz

-Hurrengo jarduerarako taldeka jarriko dira. 5 pertsonako taldeak ondo leudeke. Oraingoan taldeak denon artean erabakiko dira asanbladan. Nor eta norekin. Irizpide bat jarriko da eta horren arabera egingo dituzte hurrek taldeak.

-Behin taldeak finkatuta, irakasleak aurrez prestatutako txarteltxoak banatu eta apaintzeko esango die. Apaindu bakarrik ez, hitzaren esanahia duen marrazki bat ere egin beharko dute txartelean. Hala irakurketa-ulermena landu dezakete.

-Hau egin eta gero hitz zerrenda horrekin antzerki bat muntatuko dute eta erronka hau da: **HITZ HORIEK BAKARRIK ERABILI AHAL IZANGO DIRA ANTZERKITXOAN.**

- 4. jarduera → Antzerkiaz hausnartzen

-Aurreko ariketan egin dutenaren hausnarketa bat egitera animatuko ditugu guztiak asanbladan. Gogoratuko dugu puntu honetan, asanbladak hainbat gai lantzeko aukera ematen dizkigula. Tartean parte-hartze arazoak dituen inor baldin badugu taldean, berarekin aurrez prestatutako zerbait esateko esan geniezaioke eta asanbladan esaten badu modu nabarmenean baloratu.

-Hausnartzeko hainbat puntu egon daitezke baina konfirmatuko dugu 2. jardueran esan dugun hori. Bizitza sinpleagoa baldin bada, hizkuntzak ere bere neurrikoa beharko du bizitzarako tresna den heinean, besteak beste.

- Beraz, proposatu daitezkeen galderak hauek dira:
 - 1-Nola sentitu zarete hain hitz gutxi erabilita?
 - 2-Orduan hizkuntza gure bizitzan inportantea da?
 - 3-Nahikoa zen eurentzat hitz gutxi edukitzea?

EKOIZPEN FASEA

- 5. Jarduera → Oñatiko leku-izenen zerrenda osatzen

-Aurreko hausnarketa eta gero, proposatuko diegu beste koadro bat egitea (oraingoa soinuekin eta hitz bakar batekin), baina horretarako kokapenak behar ditugula.

-Beraz, ariketa honen helburua da taldeek ahalik eta leku-izen gehien idaztea ahalik eta denbora gutxienean. Irabazleak koadroa egiteko txanda aukeratuko du.

-Orduan hasierako talde horietan jartzeko esango diegu ikasleei eta behin taldean daudela esango diegu denak izango direla idazkariak eta txandaka idatzi beharko dutela (leku-izen bat idatzi ahal izango dute txanda bakoitzean). Hemen ere gatazkak sor daitezke, hala balitz erdigunera ekarriko ditugu eta sentipenez eta araez mintzatuko gara.

-Beraz, denbora bat emango diegu (15 minutu-edo) eta ahalik eta leku-izen gehien jaso beharko dute orri-mutu batean. Gero irakurri beharko dituzte, irakasleak zenbatuko ditu eta gehien dituenak irabazi egingo du.

*Leku-izenek erantzun beharko diote honi: Non gerta zitezkeen halako pasarteak Oñatin? (Araotz, Arantzazu ingurua,...)

- 6. Jarduera → Azken koadroak osatzen

-Jarduera honetan aurrez landutako guztiaren batuketa egingo da eta soinudun KOADRO bat egin beharko dute taldeka. Aurreko KOADROAren funtzionamendu berdina izango du.

-Alabaina, lehenengo eta behin, lekuaren izena emango zaio talde bakoitzari eta euren ekintzak hor kokatu beharko dituzte. Oraingoan, gainera, postura baten jartzeaz aparte, aurrez ikasitako hitz edo soinuak ere sartu beharko dituzte, baina beti berdina izan beharko da. Eta ohiko prozedurari jarraiki, taldekide guztiak oholtzan daudenean koadroa bukatutzan emango da. Irakasleak argazkia aterako du eta koadro hori oroitzapen bilakatuko du.

-Koadro bakoitza amaitu eta gero, ohi bezala, lehenengo publikoak esango du zer ikusten duen eta gero aktore bakoitzak esan beharko du zer izan nahi zuen.

-Koadro bakoitza txalo batekin bukatzea inportantea izango da, bakoitzak egin duen lana aitortuta gera dadin.

-Koadroren batek aukerak ematen baditu aurretik aipatutakoen ildotik, ondorio sakonagoak ateratzeko aipa bitez asanbladan. Garrantzia emango diegu modu honetara ikusitako lanei.

- 7. jarduera → Ebaluazioa

-Azken xedea burutu eta gero, ebaluazioa egin ohi dugu eta oraingoan ere hala egingo da, nahiz eta proposamen laburragoa izan. Taldeka, marrazki bat egiteko eskatuko diegu eta bi puntu bete beharko dute gutxienez: Zer ikasi duten eta nola sentitu diren. Hau adierazi beharko dute aipatutako folioan. Inportantea izango da taldekide guztien iritzia bertan agertzea, ez da esan nahi bateratuta agertu behar direnik iritzia, baizik eta guztiak agertu behar direla.

-Hau horrela, talde handian aurkeztuko dute euren esperientzia. Taldeari indarra emango zaio baina taldeko norbanakoari ere bai. Bereziki, aipatzeko garrantzizko zerbait baldin badago.

-Behin esateko guztiak entzunda, guztiak asanbladan jarri eta gela guztiak batera KOADRO bat egingo du balorazio bezala. Irakasleak honi argazki bat aterako dio eta hau izango da euren ebaluazioa. Hitzez esan baino, gorpuztu egingo dute balorazioa. Adimen anitzei garrantzia ematen zaien bezala, adierazteko modu anitzei ere berdin; eskutik helduta doaz.

HEZURDURA

- **Hasiera fasea** → Ikasleen aurrezagutzak aktibatu eta pixkanaka gaien murgilduko dira input eta jarduera diferenteen bitartez.
 - 1. jarduera → Gure arbasoen hizkuntza
 - Helburua: Gure aitona-amonon hizkuntza aldaerak identifikatu eta historiaurreko arbasoen hizkuntza imajinatu. Hala, gai honen inguruko aurrezagutzak aktibatuko ditugu.
 - Baliabideak: Irakasleen galdera sorta
 - Ebaluazioa: Behaketa
 - 2. jarduera → Hizkuntza imajinatzen
 - Helburua: KOADROAren bitartez lehengo jendartea irudikatzea.
 - Baliabideak:
 - Ebaluazioa: Behaketa + argazkia + ikasleen azalpena
- **Garapen fasea** → Azken xedea modu egokian bete ahal izateko egin beharreko lanketen proposamena agertzen da fase honetan.
 - 3. jarduera → Antzinako euskara antzerkiz
 - Helburua: Aipatuko ditugun silaba bakarreko hitzekin lehengo jendarteko pasarte bat antzeztu bestean aurrean.
 - Baliabideak: Silaba bakarreko hitzen zerrenda.
 - Ebaluazioa: Behaketa.
 - 4. Jarduera → Antzerkiaz hausnartzen
 - Helburua: Aurreko jardueran egindako antzerkiaz hausnartzea.
 - Baliabideak: -
 - Ebaluazioa: Behaketa
- **Ekoizpen fasea** → Landu den guztiarekin lehen fasean finkatutako azken xede hori lortzea edo lortzen saiatzea da fase honen helburua.
 - 5. jarduera → Oñatiko leku-izenen zerrenda osatzen
 - Helburua: Oñatiko leku-izenen zerrenda denon artean osatzea
 - Baliabideak: -
 - Ebaluazioa: Behaketa
 - 6. jarduera → Azken koadroak osatzen
 - Helburua: Taldeka koadro bat egitea jendartea eta euskara elkartuz. Lehenengo geldia eta gero soinuarekin.

- Baliabideak: -
 - Ebaluazioa: Behaketa
-
- 7. jarduera → Ebaluazioa
 - Helburua: Asanbladan azken proiektua denon artean baloratzea.
 - Baliabideak: Orri-mutua eta margotzeko materiala
 - Ebaluazioa: Behaketa eta marrazkiak

ERANSKINAK (FITXAK eta JAKINGARRIAK)

Historiaurreko euskararen zantzu batzuk eta Oñatiko euskararen oinarritzko informazioa agertzen zaigu hurrengo testuetan. Lehenengoa Xamarren “Euskara Jendea” liburutik aterata eta bigarrena “Oñatiko Euskeria” liburutik aterata.

HISTORIAURREKO EUSKARA EUSKAL HERRIAN

Segur aski historiaurreko garai honetakoak dira hitz batzuen sustraiak. Hitz horiek oinarritzko elementuei egiten diete erreferentzia eta gehienak silaba bakarrekoak dira. Askotan onomatopeiak dirudite, hotsak imitatzen baitituzte hitzok. Hauek dira adituen arabera beren antzinatasunaren adibide diren hitzak:

- SU
- UR
- LUR
- ZUR

- HAUTS
- HATS
- HATZ
- HITS
- HITZ

- HORTZ
- HOTZ
- HOTS
- ERTZ

- JO
- JAN

EGUZKIAREN EGUNA

Modu berean lurra argitzen duen astroaren ideia eta 24 orduko tartearena ere hurbil dauden bi ideia dira hizkuntzan bertan, arreta jartzen badugu:

- EGU-N
- EGU-ZKI
- EGU-R

Eguzkirik gabe ez dago egunik -antzeko hitzak, beraz-. Bestalde egurra sutan badago, berotzen gaituen eguzkiaren antza hartzen du.

URAREN AROA: URTEA

Aipatutako hitz zahar hauek ez dute beren jatorrizko zentzua galdu eta, horregatik, paregabeko bidea dira garai hartako jendearen ideiak ezagutzeko. Adibide garbia dirudi 365 eguneko denboraldia izendatzeko erabiltzen den hitzak: URTEa

Ikus dezagun nola sortzen den beste hitz antzeko bat: ELURTE. Azken hau elur hitzetik dator, elurra egiten duenean ELURTEA baitugu:

ELUR → ELURTE eta hau horrela izanik... UR → URTE

Garbi ageri da, 265 eguneko aroa, ur denbora bat, ziklo bat baizik ez zela. Ideia zaharra agerian gelditzen da oraindik Nafarroako zenbait herritan (Urdiainen, Etxalekun...) urte berria ospatzeko egiten diren ohituretan, Urteberri eguneko **ur berria** biltzen, etxez etxe edaten eta banatzen baita.

ELURTUTAKO LURRA

Beste batzuk, era berean, ez daude hauetatik oso urrun:

UR
LUR
ELUR

Azken hauek, lur/elur, erro bereko hitzak dirudite. Zergatik izan daitezke -dira- hain hurbilak lurraren eta elurraren ideiak? Zergatik daude ur/elur baino hurbilago?

Hipotesia: Lurra eta elurraren ideien arteko nahasketa hau paleolitoan izandako azken aro hotzean gerta zitekeen bakarrik, izotzaldian, esan nahi baita elurrak lur guztia estaltzen zueneko.

OÑATIKO EUSKERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Oñatiko euskarak badauka inguruko euskarengandik bereizten duen hainbat ezaugarri. Horietako bat “x”ren erabilera da. “El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes” liburuan esaten denez “Gure izkundiak xi-xau asko dako”. Ingurukoei gainera, atenzioa ematen dieten gauza bat da. Non topa dezakegu “x” hau? Hurrengo ezaugarriak “Oñatiko euskaria” liburutik hartuak daude:

- i + a, e, o, bokalen artian tartekaitten da. Esate baterako: **haundiXa, txikiXa, gehiXago, haundiXena, biXena, baliXo, karapaiXo** ... Bakanago, baiña baitta i + i, u bokalakin be: **iXixa, giXixak, piXua, iXutu** ... Beste bokal batzuen artian be bai: **uXatu, muXu, goXo** ... Eta, azkenik, aditz forma askotan be bai: **Xat, Xako, Xao, Xatzu, leiXo, degiXen** ...

- Oñatin joeria dago - a - bokala bikoizketako edo luzaketako - a - beria dakoin berbetan: *Beillotzaako ardixa, Gesaltzaatik xatok, Lizartzaan pasau dok hori, neskaak, andraak, larraan dabil, ixixaan nago, lelaatu, lumaatu, zornaatu...*
- Akaberako -o bokalari - a erakuslia gehiketan baxako, hau izaten da emaitza: goxo — **goxua** , moko — **mokua** , auzo — **auzua** , - o - > - u - bihurketan da. Gauza bera pasaitten da akaberan daguen - e bokalari erakuslia eransten xakonian, orduan - e - > - i - bihurketan da. Esate baterako: bete — **betia** , esne — **esnia** , ate — **atia** ...
- Sarri, berba baten akaberia - a danian, eta - a organikuen kasuan bereziki: anai — *anai* , makila — *makil* , ... gipuzkeran - a hori desagertu egiten da. Urbia — *Urbitik* , Vitoria — *Bitorikoa, gauz bat, eliz ederra* . Oñatikuak, berriz, ez, hemen eutsi egiten xaugu - a organikuari: **Urbixatik, Bittori-xakua, gauza bat, eliza ederra, anae zaharrena, makilla politta** ...
- Oñatiko euskeriak badako beste berezitasun bat, oso nabarmena: azentua, hau da, azentu tonikua edo intentsidadekua. Bizkai eta Gipuzkuako berbetaak nahikua entonaziño launa dakoi; Zuberuan eta Erronkarin, berriz, alderantziz, igarteko moduko entonaziñodun hizkeria ebalten daue. Oñatikuak be badako azentu hau, ez zuberotarra edo erronkariarra bestekua, baiña nehikua garbixa, hala be: **baso/basúa** = (el) bosque; **baso/básua** = (el) vaso; **mando/mándua** = (el) mando, *telebisifñuaren mándua ikusi dozue?*; **mando/mandúa**= (el) mulo, *gure mandúa ikusi dozue?*; **árte/ártia** = (el) arte, *ártia xakok horrek*; **árte/artía** = (el) encino, *artía egur gogorra dok*; **dóministiku bat** = un estornudo; **dénpora askúan**; **góizegi** ...
- Gipuzkeran nominalizaziñuen kasuan - tzen eta - tzeke ebalteko joeria dago. Oñatiko euskeriak -ketan eta -ketako ebalten ditte. Adibidez: **ez - kaítu ezaguketan, hori apurketako inddar haundixa bihar da** . Gipuzkeriak, berriz: *ez gaitu ezagutzen , hori apurtzeko indar handia behar da* .
- Aditz forma askotan pluralgille markia galdu egin dogu eta objektu singularra edo plurala dan ezto gu markaitten aditzian: **zaurixa dako** eta **zaurixak dako**; **laguna etorri xat** eta **lagunak etorri xat**; **ogi bat emun dost** eta **bi ogi emun dost** ; **egixa esan notsan** eta **egixak esan notsan**. Holakuetan kasu bixetarako adizki bera ebalten dogu.

- Bustidurak edo kontsonantiak busteia oso normala da Oñatiko azpieuskalkixan **iñ, ill, itt, indd, illt**. Adibidez: *dittu, sarittu, aittaitta, inddarra, egindda, ordainddu, astinddu, baiña, baiño, aillegau, oillua, hilttera, ibiltten...*
- *di - ti* atzizkixa Oñatin **dui - tui** ebalten da. Adibidez: harizti — **hariztui**, pagadi — **pagadui**, korosti — **korostui**, arboladi — **arboladui** ...
- Oñatiko azpieuskalkixak badittu hainbat eta hainbat berba berezko: **urjel-** urri edo eskasa esateko -, adib.: *`urjeltxo dago arbixa`*; **ost** - aurritzikixa - zerua edo zeruarekin zerikusixa dakoin gertaeren barri emuteko -, adib.: *ostaize, os - targi, ostargittu, ostarku, ostarte, ostrai, ostondo...*; **zurgua** - bi sailen arteko lerrua edo mugia -, adib.: *`iria zurguan zuzen ebagi`*; **jare** - utzi -; **ittoia** - ukulua -; **ebali-** erabili -; **txirrinkia** - gurpila -.
- **e - > - a - alternantzia** Hauxe da gure euskera azterketaruzkuan topau dogun beste ezaugarri inportante bat: berba eta aditz forma askotan emuten da
- - e - > - a - alternantzia. Herritar batzuk esaten daue berba edo aditz forma bera - e - rekin eta beste batzuk - a - rekin. Emuten dau goraldian (Arantzazu, Araotz...) - a - dala korrientiagua eta behealdian (Torreauso, Garibai, Zubillaga...), berriz, - e - . Eta kalian bata zein bestia entzuten dira. Arazo honen aurrian, batzuetan forma baten alde egin dogu, baldin eta euskera batuak hala onartutako formia ebalten badau, eta beste batzuetan bixak onartu eta eballi dittugu, baldin eta bixak indartsu eta bardin samar ebalten badira.
Ikusi degiun zein diran berba eta aditz honeik:
 - **e>a eregiduria /r/ aurrian**
berdin>bardin; baserri>basarri; berriketa>barriketa; bazter>baztar; bider>bidar; entierro>entiarro; errazoia>arrazoia; eskerrik asko> eskarrik asko; haserre>hasarre; izter>iztar; piper>pipar...
 - **berba arruntetan:**
andragei>andragai; bazkerixa>bazkarixa; emakume>emakuma; eregin>eragin; geiztua>gaiztua; hemen>hamen; nehikua>nahikua...
 - **deklinabide kasuetan :**
umiei>umiai; umieiri>umiari; umiekin>umiakin; umiendako>umiandako...
 - **aditz formetan :**
zittuein>zittuain; otsein>otsain; eukein>eukain; dadin>dedin; degixen>dagixen; degixola>dagixola...

Araozgo aldaeria

Araotz Oñatiko hego-sartaldian kokatuta daguen auzua dogu eta bere barruan auzouna dexente dittu: Agerre, Aizkorbe, Jausoro, Ugaran, Uriarte [úxarte], Madiña, Zubixa, Aratzurti eta Gerneta.

Bertako berbetia Oñati aldeko beste berbeten aldiari desbardiña da, eta auzo horretako jentiarekin harremanak dakonak segiduan igarten xao hango desbardinttasunari eta hanguai adar soiñuan *aaztarrak* dirala esaten doste.

Zeintzuk dira, ba, bertako ezaugarri horreik? Hona hemen nagusixenak - edo:

a) **e - > - a - alternantzia - a - egittia:** *ongilla, langilla, gaizkilla, adarjola, danborjola, puxetajoilla, liñajoilla, edala, egosla, ikusla, agintzailla, ereintzailla, perratzailla...*

b) **Bokal luziak egittia:**

Pelotaari, segalaari, dantzaari, aasaldian, andra jaasua, artaazittu, eraatzi, jaatzi, txaar, saator, sartzeen, batzeen, azaak, neskaak, txixaan, aldeerdi, alde - eria...

c) **AU eta - IUREKIN akabotako aditzen aditz - izenak: - UTEN egittia:** *Asmauten, entrenauten, kontauten, pregunauten, atrebiuten, entendiuten, eskribiuten, konfundiuten...*